

Telemarketing enpresa kontratatzeko lehiaketa

SORTUK burutu nahi duen kanpaina batetarako Telemarketing-eko enpresa bat kontratatzeko lehiaketa burutuko du. Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten enpresek gutxienez ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Kanpaina apirilaren 1ean hasi eta ekainaren 30erako bukatua egon beharko da.
- 5000 pertsonekin telefono bidezko harremana gauzatu beharko da epe horretan.
- Horretarako datu base bat eskainiko zaio lana esleituko zaion enpresari eta bi aldeek arteko konfidentzialtasun kontratu bat sinatu beharko da datu hauek babesteko.
- 5000 pertsona horiekin harremana izateaz gain, hauen ekarpenak jaso eta SORTUri bideratu beharko zaizkio.
- Helburu segmentu nagusia euskal hiztunen komunitateak osatzen duenez, operadoreek euskara maila altua izan dezaten eskatzen da.
- Tele operadoreen lan baldintzak zeintzuk diren aztertuko da, kalitate oneko deiak egin ahal izateko, eguneko lanaldia 6 orduz azpikoa izatea baloratuko da.
- Komunikatu beharreko edukia martxoan zehar ondo landu beharko da, hau egokia den ala ez SORTUK baloratuko duelarik. Hori horrela izanik, SORTUK edukiari dagokionean beharrezkoak diren aldaketak egiteko eskaera egin ahalko du momentu oro.
- Baldintza ekonomikoak:
 - Datu basetik SORTUK aukeratzen dituen 200 pertsonen lagin bat hartuko eta froga bat egingo da lehen bi asteetan. Ondoren froga hau baloratuko da eta neurri zuzentzaileak hartuko dira behar izanez gero. Hala ere, egindako lanarekin SORTU ez bada asetua aurkitzen, kontratu komertziala bertan behera uzteko eskumena du. Hori horrela gertatuz gero, SORTUK enpresari, lagin honen lanaren inguruko ordainketa egingo diolarik soilik.
 - Laginagatik gehienez ordainduko den zenbatekoa, 1.300,00€koa izango da BEZ kanpo.
 - 5000 deiak egiten badira gehienez ordainduko den zenbatekoa, 21.500,00€ BEZ kanpo izango dira.

- Enpresek aurrekontua bidaltzeko baldintzak:

- Epea: 2018/02/15erako aurkeztu beharra du enpresa bakoitzak bere proposamena.
- Aurrekontua kontratazioa @sortu.eus era bidali behar da edo Zutazu Enpresa parkea, Easo Eraikina, 4 behea, 20018 Donostira bidali daiteke zein presentzialki aurkeztu.
- Erantzuna, 2018/02/20an emango da webgunean eta harremanetan jarriko gara enpresarekin.
- Esleipenera ez bada enpresarik aurkezten, bigarren deialdi bat egingo da.

- Proposamenen balorazioa:

- Aurretik azaldutako baldintzak betetzea ezinbestekoa da
- Horiez gain, hobekuntzak aurkezten badira, hauek ere kontutan hartuko dira proposamena baloratzerako orduan.

- Lehiaketako enpresa garailearekin lan kontratu komertzial bat sinatuko du SORTUK.

LEHIAKETAREN EBAZPENA:

Sortuk jakinarazi nahi du jasotako eskaintza guztietatik eskatzen ziren baldintza guztiak betetzen dituen eskaintza, Iragarri SLrena, izan dela aukeratua, eta beraz, enpresarekin harremanetan jarriko gara gaur 2018/02/20tik aurrera.

